

AZPEITIA / 'Kontu-kontari' ipuin kontalaria, astelehenean, Udal Liburutegian

Astelehean, arratsaldeko 6etan hasita, ' Kontu-kontari ' ipuin kontalaria izango da Udal Liburutegian. Haur Hezkuntza 5. mailako haurrei zuzendutako ekitaldia da, hau da, 2005ean jaiotakoei eskainitakoa. Orduz kanpo heltzen denari ez zaio Enparan dorretxera sartzen lagako, beraz, orduan iristea eskatzen.

Haur eta gaztetxoek liburu zaletasuna suspertzeko asmoz antolatu ditu Udal Liburutegiak ipuin kontaketak. 21. aldia da ekimena antolatzen duela, Eusko Jaurlaritzaren diru lagun-tzari esker.

Astelehenero egingo dira kontaketak eta aste bakoitzean ipuin kontalari desberdinak etortzeaz gain, kontaketa eskaintzen zaien haurren adin tartea ere aldatuz joango da. Horrela, urrian, Pello Añorga eta Maite Franco ere izango dira eta azaroan, hauez gain, Lupe Lekuona edo Miriam Mendoza. Abenduaren 13an amaituko da ekimena.